

## KOSTUEN EGITURA

Kostu garrantzitsuenak honako hauek izango dira: enpresan lan egingo duten pertsonen soldatak (harreragilea, administrariak, irakasleak, psikologoak), azpikontratutako lanak (garbiketa, publizitatea), lokalaren alokairua eta lokalaren eraberritzea. Bestalde, argiaren, elektrizitatearen eta telefonoen kontsumoa kostu garrantzitsuak dira ere bai. **Lokalaren alokairuak** 3.300 € balio du. 363m<sup>2</sup>-ko lokal eraberritua da, baina ez du enpresaren dekorazioaren erreformarik prezioaren barruan. Erakusleihoa du. Sabino Arana kalean dago, Indautxun. **Lokala eraberritzeko eta materialaren aurrekontua** 15.000 €-koa da gehienez. **Garbiketa-zerbitzua** ez da hasieratik ordaindu beharreko kostua, negozioaren irabaziaz ateratzen ditugunean ordainduko baitugu, baina "Habitissimo" enpresarekin emandako zerbitzuak, batez beste, 380€ balio du. **Publizitateari dagokionez**, gure enpresa Bilboko



bi irati-katetan iragarriko dugu (40 principales Bilbon eta Cadena 100 Bilbon); guztira, 200€ ingurukoa izango litzateke. Langileak, garbiketa-enpresan bezala, ez dira negozioa martxan jartzeko behar den kostu bat, gu enpresako langileak garelako soilik, eta ez guke kobratuko etekina ateratzen hasi arte, baina langile bakoitzak izango lukeen **soldata** 1300 €-koa izango litzateke. **Uraren kontsumoaren** kostua urtean 28,08 €-koa (hiruileko bakoitza) izango litzateke, **argiarena** hilean 6.900 €-koa, egunean 8 orduz lan egiten baitugu, astean 5 egunez. **Gasaren kostua** hilean 839,3€-koa izango litzateke. Gero, **telefonoaren kostua** 12 €-koa izango litzateke hilean Movistar konpainiarekin. Azkenik, **wifi-aren kostua** da 28,95€-koa izango litzateke hilean.

Honako hauek izango lirateke **kostu finkoak**: langileen soldatak (1.300 €), enpresaren lokalaren alokairua (3.300 €) eta garbiketarako eta publizitaterako azpikontratutako ditugun enpresak (580 €). Aldiz, **kostu aldakorrak** honako hauek izango lirateke: lokalaren eraberritzeak (15.000 €, bakarrik aldi batekoak) eta uraren/argiaren/gasaren/telefonoaren/wifiaren kontsumoak (787 €).



Alde batetik hilabeteko gastuak izango ditugu, honako taulan agertzen direnak, baina erreforma egiteko **mailegu** bat eskatuko dugu. Kasu honetan ING bankuan 24 hilabetean bueltatzeko mailegua hartuko dugu, honek interesak %4,99-koak izanez. Hau dela eta, hilabetero 658€ ordaindu beharko dugu. **Ordaintzeko guztira 15.792€-koa** izango lirateke, hau da, interesak 792€-koak izango lirateke.

<b>HILABETEKO GASTUAK</b>		
<b>MOTA</b>		<b>GUZTIZKOA</b>
<b>KOSTU FINKOAK</b>	Soldatak 1.300€ (x6) Alokairua 3.300€ Azpikontratazioak 580€ Mailegua 658€	12.338€
<b>KOSTU ALDAKORRAK</b>	Ura, argia, gasa, telefonoa, wifiaren kostuak 787€	787€ (gastatzen dugunaren arabera, prezinoa jaitsi edo igo daiteke)
	<b>TOTALA (€)</b>	<b>13.125€</b>